



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko abenduaren 5a

102. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

- Foru Legea, Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legearen 4. artikulua aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Foru Lege proiektua, 2013rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa. Osoko Bilkurak osoko zuzenketa onetsi du (5. or.).
- Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak bazter utzi ditu osoko zuzenketak (6. or.).
- Foru Lege proiektua, abenduaren 13ko 20/2010 Foru Legea aldatzen duena, hots, Nafarroako Foru Komunitateko Odol eta Ehun Bankua izeneko entitate publikoa sortzen duena eta Nafarroan Giza Ehunen eta Zelulen Transfusio Sarearen antolamendua ezartzen duena, hemendik aurrera honela deituko baita: 20/2010 Foru Legea, abenduaren 13koa, Nafarroako Odol eta Ehun Bankua arautzen duena. Osoko Bilkurak bazter utzi ditu osoko zuzenketak (6. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaintzaile ez-profesionalen Gizarte Segurantza finantzatzekoa. Osoko Bilkurak bazter utzia (7. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ekitaldi solemneetan, Nafarroako ereserkiak gain, Espainiako ereserkia ere jo dadin. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Gobernuaren Madrileko ordezkari itxi dezan. Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak onetsia (8. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren legegintzako aldaketak egin dituzan etxebizitza-utzarazpenak eta gehiegizko zorpetzea ekiditeko. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak onetsia (9. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da ontzat har dezan Giza Eskubideen Europako Auzitegiak 2012ko uztailaren 10ean emandako epaia. Osoko Bilkurak bazter utzia (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etxebizitza-utzarazpen kasuetarako aholkularitza zerbitzua zabal dezan, prebentzio eta arreta plan integral baten bidez. Mozioa erretiratzea (10. or.).
- Adierazpen politikoa, Generoko Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta. Osoko Bilkurak berretsia (10. or.).

**F SAILA:****Galderak:**

- Galdera, babes ofizialeko etxebizitzan jabeen etxebizitza-utzarazpenei eta Administrazioak etxebizitza horien gainean dituen eskubideak gauzatzeko aurreikusitako jarduketei buruzkoa. Galdera erretiratzea (12. or.).
- Galdera, jakitekoa komenigarria ote den Gizarte Politiketako Departamentuan aldaketaren bat egitea, kirola zeharka txerta dadin beste departamentu batzuetan. Galdera erretiratzea (12. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**Foru Legea, Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legearen 4. artikulua aldatzen duena.**

**OSOKO BILKURAK ONETSIA**

Nafarroako Parlamentuak, 2012ko azaroaren 22an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legearen 4. artikulua aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2012ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legearen 4. artikulua aldatzen duen Foru Legea**

**ZIOEN AZALPENA**

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 1. artikuluekin bat, Espainiako hezkuntza sistemaren oinarrietako bat ekitatearen printzipioa da, horrek bermatuko baititu aukera berdintasuna, hezkuntza-inklusioa eta bazterkeria eza, batetik, eta desberdintasun pertsonal eta sozialak –desgaitasunak eragindakoak, bereziki–berdinduko dituen elementuaren eginkizuna joka dezakeelako, bestetik.

Nafarroako Eskola Kontseilua, berriz, Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan irakaskuntza ez-unibertsitarioaren programazio orokorrekaren zerikusia duten sektore sozial guztien kontsulta eta parte-hartzea bideratzen dituen organo goren da.

Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arau-

tzen dituen azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legeak 7.1.i) artikuluan xedatzen du Eskola Kontseiluari besteak beste gai hauei buruzko iritzia eskatuko zaiola, derrigorrez: “Irakaskuntzaren kalitatea hobetzera eta Nafarroako gizartearen egoerari egokitzera bideraturiko xedapen eta jarduketa orokorrak eta gizarte-sektoreen artean eta giza-banakakoen artean dauden diferentzia eta mailaketak konpentsatzera bideraturikoak”.

Kontuan hartuta egun aniztasunari arreta ematea dela Espainiako hezkuntza sistemaren zutabe-etako bat, eta ikusirik Nafarroako Eskola Kontseiluak sortu zenetik gaur arte bereganatu duen esperientzia, egokitza eta beharrezkotzat jotzen da desgaitasunaren ondorioz arreta berezia behar duten ikasleak ordezkatu dituen kide bati tokia egitea organo horren barruan.

Bestetik, azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legeak, aipatutako 7.1 artikuluan, xedatzen du, halaber, Eskola Kontseiluari besteak beste gai hauei buruzko iritzia eskatuko zaiola, derrigorrez: “b) Ikastetxeak sortu, aldatu, kendu eta geografikoki banatzeko plangintza orokorrerako printzipioak, oinarriak eta irizpideak. c) Ikastetxeetako ezaugarriei, plantillei eta hezkuntza ekipamenduei buruzko arau orokorrak. d) Ikastetxe publikoen eta ikastetxe pribatu itundu eta diruz lagundutakoen finantzaziorako irizpide orokorrak” Eta 7.2 artikuluan, berriz: “Eskola Kontseilu edo Hezkuntza Batzorde Nagusiak, bere aldetik, honako gaiak buruzko proposamen eta txostenak igorri ahalko dizkio Hezkuntza eta Kultura Departamentuari: a) Hezkuntza sistemaren ebaluazioa. b) Ikastetxeen araubidea. c) Ikastetxe publiko eta pribatuetan legezko arauak betetzea. d) Irakasleen prestakuntza eta hobekuntza. e) Giza baliabideen arloko politika”.

Kontuan hartuta eginkizun eta eskumen horiek ageriko eragina dutela ikastetxe publikoetako eta

ikastetxe pribatu itundu eta diruz lagundutakoetako zuzendaritzari dagozkion eginkizunetan, bidezkotzat jotzen da bi sektoreetako zuzendariak ordezkari izatea Nafarroako Eskola Kontseiluan.

**Artikulu bakarra.** Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legearen 4. artikulua aldatzea.

Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legearen 4. artikulua edukia hauxe izanen da aurrerantzean:

“4. artikulua.

1. Hezkuntza Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia kide hauek osatuko dute:

a) Kontseiluburua, Nafarroako Gobernuak izendatuko duena.

b) Nafarroan dauden maila ez-unibertsitarioko ikastetxe publiko eta pribatuak irakasleen bost ordezkari, honela banatuta:

Ikastetxe publikoen hiru ordezkari, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari irakasleen Langileen Batzordean ordezkari gehien duten hiru sindikatuetatik bana, beraiek aukeratu beharrekoak.

Ikastetxe pribatuen bi ordezkari, Nafarroako Foru Komunitateko irakaskuntza pribatuen ordezkari handiena duten bi sindikatuetatik bana, beraiek aukeratu beharrekoak.

c) Bost ordezkari, ikasleen guraso elkarten federazioek proposatu eta bakoitzak duen bazkide kopuruaren arabera aukeratuak.

d) Nafarroako maila ez-unibertsitarioetako ikastetxe publiko eta pribatuak irakasleen bi ordezkari, irakasleen elkarteek edo elkarten federazioek proposatu eta bakoitzak duen ordezkariaren arabera aukeratuak.

e) Nafarroako ikastetxe pribatuak irakasleen entitate titularren eta enpresaburuen elkarten hiru ordezkari, elkarten edo federazioen proposamenari jarraikiz bakoitzaren ordezkariaren arabera aukeratuak, Nafarroako Foru Komunitatean dituzten ikastetxeetan dagoen ikasle kopuruaren arabera.

f) Hezkuntza Administrazioaren bost ordezkari, Hezkuntzako kontseilariak proposatuak.

g) Nafarroako toki entitateen bi ordezkari, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak proposatuak.

h) Irakaskuntzaren arloan izen handiko pertsonen artean aukeraturiko ordezkari bat, Hezkuntzako kontseilariaren proposamenari jarraikiz izendatua.

i) Unibertsitateetako bi ordezkari, bata publiko eta bestea pribatuko, kasuan kasuko gobernu organoaren proposamenari jarraikiz aukeratuak.

j) Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordearen bi kide, Batzordeak berak aukeratuak.

k) Nafarroako Foru Komunitatean ordezkari handiena duen enpresaburuen elkarteak proposaturiko ordezkari bat.

l) Nafarroako Foru Komunitatean ordezkari handiena duen sindikatuak proposaturiko ordezkari bat.

m) Nafarroako ikastetxeetako administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat, Administrazioa-Erroko Batzordeak proposatua.

n) Nafarroako Foru Komunitateko desgaitasun motak bildu, eta ordezkari handiena duen erakundearen ordezkari bat.

ñ) Nafarroako Foru Komunitateko maila ez-unibertsitarioetako ikastetxe publikoetako zuzendarien ordezkari bat, ikastetxe horietako zuzendarien elkarteek proposatuak.

o) Nafarroako Foru Komunitateko maila ez-unibertsitarioetako ikastetxe pribatu itunduetako zuzendarien ordezkari bat, ikastetxe horietako enpresaburuen elkarteek proposatua.

p) Eskola Kontseiluko edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiko idazkari lanak Nafarroako Gobernuak horretarako izendatutako pertsonak beteko ditu. Bileretan parte hartuko du, hizpidearekin baina botorik gabe, eta horien akta egiten du.

q) Berdintasunaren alde lan egiten duten elkarten ordezkari bat, hautatua izanen dena berdintasunaren aldeko agenteen eroldara aurkezten diren artetik; errolda hori helburu horrekin sortuko da.

2. Hezkuntza Departamentuak Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiaren esku utziko du bere eginkizunak egoki burutzeko behar adinako giza baliabide nahiz baliabide materialak.

3. Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiak bere eginkizunak modu egokian aurrera eramateko beharrezkotzat jotzen dituen teknikari edo aholku-emaleen laguntza eska dezake. Teknikari eta aholku-emale horiek hizpidea izanen dute, baina botorik ez.

4. Eskola Kontseiluko kideek uneoro eskatu ahalko dizkiote Hezkuntza Departamentuari beren eginkizunak egoki betetzeko behar dituzten informazio eta agiriak, kontseiluko buruaren bitartez.”

**Xedapen iragankor bakarra.** Nafarroako Foru Komunitateko maila ez-unibertsitarioetako ikastetxeetako zuzendarien ordezkariak sartzea.

Nafarroako Foru Komunitateko maila ez-unibertsitarioetako ikastetxeetako zuzendarien ordezkari-

ak izendatu bitarte, Kontseiluan izaera horrekin sartuko dira egun irakaskuntzaren arloan izen handiko pertsonak diren aldetik kide diren zuzendariak.

**Azken xedapena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean berean hartuko du indarra.

---

## **Foru Lege proiektua, 2013rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.**

### *OSOKO BILKURAK OSOKO ZUZENKETA ONETSI DU*

Nafarroako Parlamentuak, 2012ko azaroaren 22an egindako Osoko Bilkuran, onetsi zuen Nafarroa Bai parlamentu-taldeak 2013rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko osoko zuzenketa.

Horri horrela, Legebiltzarreko 132.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, bazter utzia gelditzen da aipatu proiektua.

Iruñean, 2012ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzkoa.**

### *OSOKO BILKURAK BAZTER UTZI DITU OSOKO ZUZENKETAK*

Nafarroako Parlamentuak, 2012ko azaroaren 22an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen bazter uztea zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketak. Zuzenketa horiek Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek, eta Izquierda-Ezkerra eta Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeek aurkeztu zituzten.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 132.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, aipatu proiektua Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordera igorri da.

Iruñean, 2012ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

## **Foru Lege proiektua, abenduaren 13ko 20/2010 Foru Legea aldatzen duena, hots, Nafarroako Foru Komunitateko Odol eta Ehun Bankua izeneko entitate publikoa sortzen duena eta Nafarroan Giza Ehunen eta Zelulen Transfusio Sarearen antolamendua ezartzen duena, hemendik aurrera honela deituko baita: 20/2010 Foru Legea, abenduaren 13koa, Nafarroako Odol eta Ehun Bankua arautzen duena.**

### *OSOKO BILKURAK BAZTER UTZI DITU OSOKO ZUZENKETAK*

Nafarroako Parlamentuak, 2012ko azaroaren 22an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen bazter uztea Bildu-Nafarroa eta Nafarroa Bai, eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek ondoko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketak: "Foru Lege proiektua, abenduaren 13ko 20/2010 Foru Legea aldatzen duena, hots, Nafarroako Foru Komunitateko Odol eta Ehun Bankua izeneko entitate publikoa sortzen duena eta Nafarroan Giza Ehunen eta Zelulen Transfusio Sarea-

ren antolamendua ezartzen duena, hemendik aurrera honela deituko baita: 20/2010 Foru Legea, abenduaren 13koa, Nafarroako Odol eta Ehun Bankua arautzen duena."

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 132.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, aipatu proiektua Osasun Batzordera igorri da.

Iruñean, 2012ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, mendekotasun egoeran dauden pertsonen zain-  
tzaile ez-profesionalen Gizarte Segurantzza finantzatzekoa.**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Legebiltzarrak, 2012ko azaroaren 22an eginda-  
ko Osoko Bilkuran, erabaki zuen bazter uztea  
mendekotasun egoeran dauden pertsonen zain-  
tzaile ez-profesionalen Gizarte Segurantzza finan-  
tatzeko Foru Lege proposamena.

Agintzen da erabaki hori argitara dadin, Lege-  
biltzarreko Erregelamenduaren 114.1 artikulua  
xedatutakoa betez.

Iruñean, 2012ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

---

**E saila:**

**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ekitaldi solemneetan, Nafarroako ereserkiaz gain, Espainiako ereserkia ere jo dadin.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko azaroaren 23an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ekitaldi solemneetan, Nafarroako ereserkiaz gain, Espainiako ereserkia ere jo dadin".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Foru Komunitatean egiten diren ekitaldi solemneetan nazioko ereserkia ere jo dadin, Nafarroako ereserkiaz gain."

Iruñean, 2012ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Gobernuaren Madrileko ordezkari itxi dezan.**

*KULTURAKO, TURISMOKO ETA ERAKUNDE HARREMANETAKO BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak, 2012ko azaroaren 27an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Gobernuaren Madrileko ordezkari itxi dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Gobernuaren Madrileko Ordezkaritza itxi dezan, eta haren eginkizunez Kultura eta Erakunde Harremanetarako Departamentuko langileak arduratu daitezten, halako moduan non Departamentuaren kultur ekintza hobetzera bideratuko baita neurri horren bidez aurreztutakoa."

Iruñean, 2012ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera



**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiatzen du beharrezkoak diren legegintzako aldaketak egin ditzan etxebizitza-utzarazpenak eta gehiegizko zorpetzea ekiditeko.**

*EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGU BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak, 2012ko azaroaren 27an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiatzen du beharrezkoak diren legegintzako aldaketak egin ditzan etxebizitza-utzarazpenak eta gehiegizko zorpetzea ekiditeko."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak:

1. Espainiako Gobernuak premiatzen du egin beharreko lege-aldaketak egin ditzan, etxebizitza-utzarazpenak eta etorkizuneko gehiegizko zorpe-

tzea ekidite aldera. Hartara, mozio honen zioen azalpenean jasotako sei neurriak hartzeko egin beharreko izapideak eginen ditu, ondoko legeak aldatuz: Hipotekei buruzko Legea, Prozedura Zibilaren Legea, Hipoteka Merkatua arautzen duen Legea, Kreditu-entitateen Esku-hartzeari eta Diziplinari buruzko Legea eta Mailegu Hipotekarioak subrogatzeari eta aldatzeari buruzko Legea.

2. Nafarroako Gobernuak premiatzen du Espainiako Gobernuari eman diezaion aldaketak egiteko premia honen berri eta, horrenbestez, haren aurrean egin beharreko zuzemenak egin ditzan helburu hori lortzeko."

Iruñean, 2012ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da ontzat har dezan Giza Eskubideen Europako Auzitegiak 2012ko uztailaren 10ean emandako epaia.**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Nafarroa Bai eta Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeek ondoko mozioa aurkeztu zuten: "Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da ontzat har dezan Giza Eskubideen Europako Auzitegiak 2012ko uztailaren 10ean emandako epaia."

Legebiltzarrak, 2012ko azaroaren 23an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2012ko irailaren 17ko 72. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etxebizitza-utzarazpen kasuetarako aholkularitza zerbitzua zabal dezan, prebentzio eta arreta plan integral baten bidez.**

### *MOZIOA ERRETIRATZEA*

Legebiltzarrak, 2012ko azaroaren 23an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen adieraztea jakinaren gainean dagoela Enrique Martín de Marcos jaunak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozio horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da etxebizitza-utzarazpen kasuetarako aholkularitza zerbitzua zabal dezan, prebentzio eta arreta plan integral baten bidez.

Mozio hori 2012ko azaroaren 19ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Adierazpen politikoa, Generoko Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta.**

### *OSOKO BILKURAK BERRETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2012ko azaroaren 23an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen berrestea Generoko Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta Eledunen Batzarrak 2012ko azaroaren 19an onetsitako adierazpen instituzionala. Hona, hitzez hitz, adierazpenaren testua:

“1.- Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa adierazten du, generoko indarkeriaren drama behin betikoz erauztera bideratutako politikaren garapenean aurrerabidea elkarrekin egiten jarraitzekoa; izan ere, egindako aurrerabidea gorabehera, oraindik ere emakume askok pairatzen dute indarkeria mota hori.

2.- Nafarroako Parlamentuak bere aintzatespena adierazten die emakumeei duintasuna itzultze aldera egunero borrokatzen duten herritarrei, elkargo profesionalei, erakundeei eta administrazio publikoei, emakume izate hutsagatik giza arrazaren erdiak historian pairatu duen diskriminaziorik handiena pairatzen baitute emakumeek.

3.- Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten die generoko indarkeriaren biktimak guztiei, eta bere borondatea erakusten du berdintasun-politikak bultzatzen jarraitzeko eta prebentzio lana egiteko hezkuntza-sistemaren lehen urratsetatik hasita, arlo horretan nahitaezkoa den aldaketa kulturala ekartzeko tresnarik egokienak diren neurrian.

4.- Nafarroako Parlamentuak konpromiso irmoa hartzen du lan egiten jarraitzeko gizonen

eta emakumeen arteko berdintasuna lortze aldera, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko modu gisa, diskriminazioarekin bukatzeko politika eta ekintza tinkoak sustatuz.

5.- Nafarroako Parlamentuak errotik salatzen du emakumeen aurkako indarkeria, eta bere laguntza eta elkartasun guztia eskaintzen dizkie indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeei, bai eta haien senitarteko eta lagunei ere.

6.- Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere etengabeko salaketa-jarrera izanen duela, eta irmoki jardunen duela emakumeen aurkako indarkeria edo diskriminazio ororen aurrean.

7.- Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere eguneroko jardunean emakumeen aurka gerta litezkeen jarrera matxistak nahiz jazarpenekoak errefusatuko dituela.

8.- Nafarroako Parlamentuak dei egiten die herritarrei, parte har dezaten azaroaren 25aren kariatara antolatzen diren ekimenetan, eta emakumeen aurkako indarkeria errefusatzeko eta salatzen jarrai dezaten.

9.- Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du ondoko neurriak bultzatzeko:

– Berdintasun politiketara bideratutako aurrekontua handitzea, bai eta emakumeen aurkako indarkeria borrokatzeko ere.

– Prebentziorako eta egoera bereziki zaugarri-  
an dauden emakumeei laguntzeko aurrekontu-  
baliabideak, baliabide materialak eta giza baliabi-  
deak handitzea.

– Gizarte parekide bat sustatzea, zeinean erre-

ala eta eragingarria izanen baita lan-berdintasune-  
rako eskubidea: soldata-diskriminaziorik gabea eta  
aukera- eta eskubide-berdintasunekoa”

Iruñean, 2012ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, babes ofizialeko etxebizitzan jabeen etxebizitza-utzarazpenei eta Administrazioak etxebizitza horien gainean dituen eskubideak gauzatzeko aurreikusitako jarduketei buruzkoa.**

*GALDERA ERRETIRATZEA*

Legebiltzarrak, 2012ko azaroaren 22an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen adieraztea jakinaren gainean dagoela Roberto Jiménez Alli jaunak aurkezturiko babes ofizialeko etxebizitzan jabeen etxebizitza-utzarazpenei eta Administrazioak etxebizitza horien gainean dituen eskubideak gauzatzeko aurreikusitako jarduketei buruzko galdera erretiratu izanari dagokionez.

Galdera hori 2012ko azaroaren 8ko 91. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**Galdera, jakitekoa komenigarria ote den Gizarte Politiketako Departamentuan aldaketaren bat egitea, kirola zeharka txerta dadin beste departamentu batzuetan.**

*GALDERA ERRETIRATZEA*

Legebiltzarrak, 2012ko azaroaren 22an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen adieraztea jakinaren gainean dagoela Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera zen jakitekoa komenigarria ote den Gizarte Politiketako Departamentuan aldaketaren bat egitea, kirola zeharka txerta dadin beste departamentu batzuetan.

Galdera hori 2012ko azaroaren 20ko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera